

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko ekainaren 5eko erabakiaren laburpena: hamar langile baino gutxiago dituzten Vitoria-Gasteizko enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoen udal programaren 2020ko deialdia onestea

BDNS(Identif.): 510956

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehena. Onuradunak

Enpresa txikiak, forma juridikoa edozein izanik ere, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak barne, baldin eta egoitza Vitoria-Gasteizen badute eta beren jarduera ekonomikoa bertako lantoki batean burutzen, hamar langile baino gutxiago badituzte eta COVID-19ak sortutako krisiak eragin diela egiaztatzen badute, zeinek, alarma-egoera bukatu edo aldi baterako enplegu-erregulaziotik atera ondoren, gutxienez lau hilabeterako kontratatzen dituzten COVID-19ak sortutako krisiaren eraginez enplegua galdu zuten edo lanaldia nahiz soldata murriztu zitzaizen pertsona berak, lanaldia eta soldata mantendu edo hobetuz.

Bigarrena. Xedea

COVID-19ak sortutako krisiak eragindako langileak kontrata daitezela eta langile horien lanaldiak berreskuratu edo handitu daitezela sustatzea, Vitoria-Gasteizko udalerrian.

Hirugarrena. Dirulaguntza jaso lezaketekoen ekintzak

Alarma-egoera bukatu edo enpresa aldi baterako enplegu-erregulaziotik atera ondoren gehienez bi hilabeteko epean burutzen direnak.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Laugarrena. Oinarriak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia), eta 2020ko ekainaren 12an, berriz, hamar langile baino gutxiago dituzten Vitoria-Gasteizko enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoen 2020ko deialdiaren berariazko oinarriak. Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Bosgarrena. Zenbatekoa

Zuzkidura: 450.000,00 euro, 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0823.2411.489.67 partidaren kontura Enplegu-egonkortasunerako laguntzak.

Gehieneko laguntza: enpresa bakoitzeko, 6.000,00 euro.

Lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, 2.000,00 euro.

Lanaldi partzialeko kontratu bakoitzeko, lanaldiarekiko zati proportzionala.

Lanaldi partzialak berreskuratzeagatik, lanaldi-igoerarekiko proportzioan.

Dirulaguntza jaso lezakeen gutxieneko lanaldia: ehuneko 50a.

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2020ko irailaren 11ra arte.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 11

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*